



EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Ez al huen hik ere heure lagunaz errukitu behar, ni hitaz errukitu nintzen bezala?”

2023ko irailaren 17a
Urteko 24. igandea (A)

Mateo 18, 21-35.

Orduan, hurbildu zitzaion Pedro Jesusi eta galdetu zion: Jauna, senide batek bidegabekeriaren bat egiten badit, zenbat aldiz barkatu behar diot? Zazpi aldiz?

Jesusek erantzun zion: Zazpi aldiz ez, zazpi mila zazpi aldiz.

“Hain zuzen, zerbitzariekin kontuak garbitu nahi izan zituen erregearekin bezala gertatzen da Jainkoaren erregetzarekin. Kontuak garbitzen hasi orduko, milioi asko zor zizkion zerbitzari bat eraman zioten. Honek ez zuen zerez ordaindu, eta nagusiak, zerbitzaria bera, emaztea, semealabak eta ondasun guztiak saltzeko agindu zuen, zorrak ordainarazteko. Zerbitzariak, orduan, nagusiaren oinetan ahozpezturik, eskatu zion: ‘Emadazu astia, eta dena ordainduko dizut’. Nagusiak, errukiturik, dena barkatu eta libre utzi zuen zerbitzaria.

“Baina zerbitzari hark, irten orduko, diru pixka bat zor zion zerbitzu-lagun batekin egin zuen topo eta, lepotik heldurik eta ito beharrean, esaten zion: ‘Emadak zor duana’. Laguna oinetara erori zitzaion, erreguka: ‘Emadak astia, eta dena ordainduko diat’. Baina hark ezetz. Eta joan eta kartzelan sartu zuen, zorra ordaindu arte.

“Gertatua ikusirik, beste zerbitzariak biziki nahigabetu ziren, eta guztiaren berri nagusiari ematera joan ziren. Orduan, nagusiak zerbitzari hari berriro dei egin eta esan zion: ‘Zerbitzari gaizto hori! Horrenbesteko zorra barkatu diat nik, erregutu didaialako. Ez al huen hik ere heure lagunaz errukitu behar, ni hitaz errukitu nintzen bezala?’ Eta, haserre bizitan, zigorpean utzi zuen nagusiak, zor guztia ordaindu arte.

“Berdinberdin egingo dizue zeruko nire Aitak, senideok elkarri bihotzez barkatzen ez badiozue”.

Zazpi aldiz ez, zazpi mila zazpi aldiz.

BARKATUZ BIZI

José Antonio Pagola

Ikasleek gauza sinesgaitzak esaten entzun diote Jesusi etsaiekiko maitasunaz, pertsegitzen gaituztenekiko otoitzaz, kalte egin digutenekiko barkazioaz. Segur aski, mezu harrigarria iruditu zaie, baina ez oso errealista eta, gainera, oso problematikoa.

Oraingo honetan, planteamendu oso praktikoa eta zehatza agertu dio Pedrok Jesusi; beren artean dituzten arazo batzuk konpontzen lagunduko diena: errezeloak, inbidiak, aurkaritzak, gatazkak eta hika-mikak. Nola jokatu behar dute Jesusen jarraitzaileen familia horretan? Zehazki: «**Neure anaia iraintzen banau, zenbat bider barkatu behar diot?**»

Jesusek erantzun baino lehen, Pedro oldartsuak hartu dio aurre bere iradokizuna eginez: «Zazpi aldiz?» Proposamen hori oso zabala da, juduen gizartean arnasten den giro zorrotzaren aldean. Lege-maisuen eta esenioen taldeetan bizi ohi zutena bera baino zabalagoa, hauek gehienera lau aldiz barkatzeko eskatzen baitzuten.

Pedro, halaz guztiz, juduen kasuistikaren munduan mugitzen da; hartan barkazioa adiskidetasunezko konponketa arautua; talde bereko zirenen bizikidetasuna garantizatzeko irtenbidetzat emana.

Jesusen erantzunak beste erregistro batean jarri beharra dakar. Barkazioak ez du mugarik: «**Ez dizut esaten zazpi aldiz, baizik hirurogeita hamarretan zazpi aldiz**». Ez du zentzurik zenbat aldiz barkatu den kontuan emateak. Zenbat aldiz barkatu duen zenbatzen hasten dena zentzurik gabeko bidean sartuko da, Jesusen jarraitzaileen artean nagusi izan behar duen espiritua hondatzen duen bidean.

Ezaguna zen juduen artean Lamek-en, basamortuko legendazko heroi haren «Mendeku-kanta»; hau zioen: «Kain zazpi aldiz mendekatuko dute; Lamek, berriz, hirurogeita hamarretan zazpi aldiz». Mugarik gabeko mendeku-kultura honen aurrean, mugarik gabeko barkazioa abesten du Jesusek bere jarraitzaileentzat.

Oso urte gutxitan ezinegona haziz joan da Elizaren baitan, gero eta gatazka zein aurkaritza saminagoak eta mingarriagoak eragin dituena. Elkarrekiko errespetu falta, irainak eta kalumniak gero eta sarriago gertatzen dira. Inork gaitzesten ez dituela, beren burua kristautzat ematen duten taldeak internet-sareaz baliatzen dira oldarkortasuna eta gorrotoa eriteko, beste fededun batzuen izena eta ibilbidea gupidarik gabe hondatuz.

Premia estukoak ditugu Jesusen lekukoak, haren Ebanjelioa hitz sendoz hots egingo eta bihotz apalez haren bakea kutsatuko dutenak. Fededunak: haren Elizan sartu den itsutasun gaixoti hori barkatuz eta sendatuz joango diren lekukoak behar ditu.